



Usurbilgo Udala

AZAROAK 25, INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta horren kariatara, Usurbilgo udal-gobernuak honako Adierazpen Instituzionala egin du:

Izendatzen ez dena, ez da existitzen. Horregatik, ezer baino lehen, eta inork ahaztu ez ditzan, aurten hil dituzten emakumeak gogorarazi nahi ditugu:

- Florentina Jiménez, Gasteizen hila.
- María José Bejarano, Florentinaren alaba, Gasteizen hila.
- Roxana, Donibane Garazin hila.
- Réjene, Bidarten hila.
- Sophie Lösche, Asparrenan hila.
- Natalia Bally, Uhartan hila.
- Maguette Mbeugou, Bilbon hila.
- Yolanda Jaén Gómez, Iruñean hila.

Aspaldiko estatistikarik dramatikoena utzi du indarkeria matxistak aurten Euskal Herrian: bederatzita emakume hil dituzte. 2005etik ez da halako sarraskirik izan, izan ere, urte hartan hamar andrazko hil zituzten. Bortxaz hil dituzte emakume horiek euren bikotekide edota bikotekide oihek, eta, ez da dudarik, hilketak indarkeria matxistaren adierazlerik lazgarrienak direla. Konponezinak.

Edonola ere, are sakonagoa da arazoa. Datuak dira horren lekuko. Berria egunkariak osatu berri duen webgune batean ikusi ahal izan dugunez, indarkeria matxistak 98 emakume eta 11 adingabe hil ditu azkeneko hamasei urteetan Euskal Herrian, 2003ko urtarrila eta 2018ko azaroa bitartean. Feminizidioak soilik aintzat hartuta, andrazko baten hilketarik gabe Euskal Herriak igaro duen denbora tarterik handiena 285 egunekoa izan da. Beraz, hilketa matxistek ez dute etenik izan ez denboran, ez geografian (Euskal Herria osoan hil dituzte emakumeak), ez adinean. Zentzu horretan, adierazgarria da hildako 98 emakume horietatik erdiek 39 urte baino gutxiago zituztela.

Halaber, badira berriki ezagutu ditugun beste datu batzuk ere, esate baterako, honakoak: Hego Euskal Herrian zortzi emakumek salatzen dituzte egunero tratatu txarrak (kontuan izan behar da hamarretik hiru baino ez direla salatzen); eta, une honetan 4.869 emakume ari dira jasotzen poliziaren babesa.

Bestetik, nabarmetzekoa da indarkeria jasaten duten emakumeek jasaten duten biktimizazioa eta kulpabilizazioa. Oso presente dago arlo guztietan, besteren artean, arlo judizialean. Horren lekuko da *Manadaren* aurkako auzibidean gertatutako guztia. Bistan da, beraz, oraindik ere bide luzea dagoela egiteke egungo justizia patriarkalarekin amaitzeko.

Ezin dugu, inondik inora, egoera lazgarri horretara ohitu. Asaldatzeko modukoa da egoera, eta, horrenbestez, arazoa erdigunean jartzea dagokigu. Eraiketa edota eraso matxistak ezin ditugu modu isolatuan ulertu, eta arazoaren muinera, sustraietara, jo behar dugu ezinbestean. Erakundeok horren arduradun dugu, izan ere, indarkeria matxistak sistema sozial, ekonomiko eta sinboliko honetan du jatorria. Eta sistema hori injustua da; aukera berdintasunik ez du bermatzen, emakumeak menpeko estatus batean kokatzen ditu eta indarkeria matxista erabiltzen du tresna sistemiko gisa.

Egun, mugimendu feministaren lan kementsuari esker, gure jendartearen gehiengo handi batek eraiketa matxistak irmoki gaitzesten ditu. Hala eta guztiz ere, emakumeek egunero pairatzen dituzten askotariko indarkeria adierazpenekiko tolerantzia eta inbisibilizazio handia dago oraindik ere. Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ahozkoa, sexuala, sinbolikoa edota ekonomikoa arlo guztietan gertatzen da: kaleetan, lanean, aisialdian, jai-guneetan, hedabideetan, etxean, watsap-taldeetan... Indarkeria mota eta adierazpen horiek guztiak elkar lotuta daude.

Hortaz, arlo guztietan eta indarkeriaren adierazpen guztien gaineko zeharkako lanketa estrategikoa eta iraunkorra bultzatzea funtsezkoa da. Hala, lanketa horren lehenengo xedea izan behar du indarkeria mota horiek agerian uztea eta normaltasunez ez hartzea, eta gero, erroan, jatorrian esku-hartu behar dugu, egungo orden soziala eraldatzeko urratsak eginez, hau da, bizitzaren arlo guztietan, publikoan nahiz pribatuan, estereotipoak, sinesmenak, baloreak, jarrerak, praktikak eta abarrak eraldatuz.

Eta zeregin hori, gizartea osatzen dugun eragile guztiok gure egin behar dugu, hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea sortzen edo babesten ari den indarkeria matxistari: erakunde publikoek, kultura-eragileek, hedabideek, lan-arloko eragileek edota eragile ekonomikoek. Baina herritarrok, familiek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dugu.

Hala, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Usurbil feminista baten aldeko aldarrikapena, eta dagozkigun konpromisoak geure egiten ditugu bide horretan. Eta argi dugu, era berean, zeregin hori mugimendu feministarekin elkarlanean egin behar dugula.

Horregatik, igande honetarako herriko emakumeek deitu duten mobilizazioarekin bat egin eta usurbildarrei parte hartzeko deia egiten diegu.